

ARETXABALETAKO B EREMUAN EGIN NAHI DEN BIDEGORRIAREN PROIEKTUAN AURREIKUSITAKO LANAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIOKO KLAUSULEN PLEGUAK

XEDAPEN OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN HELBURUA:

Kontratuaren helburua da, Aretxabaletako B eremuan egin nahi den Bidegorriaren Proiektuan aurreikusitako lanak egitea.

Helburuak, Europako Batzordeko Kontratuen Hiztegi Komunaren nomenklaturaren 45212212 kodeari dagokio.

Esandako obrak jasotzen dituen proiektua, kontratazio organoak onartu du, 2015eko apirilaren 27ko erabakiaren bitartez.

Kontratzuko izaera edukiko dute, planoek, baldintza teknikoen pleguak, memoriak, obra unitateen osagai diren oinarrizko materialen deskribapenari dagokionean, prezioen koadroak, proiektuaren lan programak eta hala badagokio esleipendunak aurkezten duenak, behin Administrazioak onartu ondoren.

2.KONTRATAZIO ORGANOAK:

Kontratazio organoa Tokiko Gobernu Junta da eta hark udalaren izenean jarduten du.

Aipatutako kontratazio organoak, egoki den administrazio kontratua esleitzeko ahalmena dauka eta ondorioz berari dagokio kontratuak interpretatzea, haren betetzean sor daitezkeen arazoak konpontzea, arrazoi publikoengatik aldatzea, bertan behera uztea eta haren ondorioak zehaztea, aplikaziozkoa den araudiarekin bat etorritz. Esandakoari buruz har ditzakeen erabakiak exekuziozkoak izango dira, eta beti ere kontratistak ahalmena duen Jurisdikzioaren aurrean inpugnatzeko duen eskubidearen kaltetan gabe.

3.- LEGE ARAUBIDEA

Plegu honen arabera egindako kontratua administrazio izaerakoa da eta bi aldeek bete beharko dituzte: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen aipatu berri den lege horren Araudi Orokorra, haren aurka egiten ez duen guztian, eta abenduaren 31ko 3854/1970 Dekretuak onartzen duen estatuko obrak kontratatzekeo Estatuaren administrazioko Klausula Orokorren Plegua, esandako arauen aurka jotzen ez duten bitartean.

Gainera aplikatuko dira, SPKL partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 EDa eta estatuaren administrazio kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenak eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak emandakoak, beren konpetentzien eremuan.

4.KONTRATZEKO GAITASUNA

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna izan eta SPKLTBren 60. artikuluan aurreikusita dauden kontratatzekeo inolako debekurik ez duten, pertsona fisiko zein juridikoek, espainolek nahiz atzeritarrek, kontratatu ahal izango dute administrazioarekin.. Kontratatzekeo gaitasun hori SPKLTBren 73. artikulua aurreikusten dituen medioen bitartez egiaztatu ahal izango da.

Europako Erkidegoko kide diren edo Europako Ekonomia espazioari buruzko erabakia sinatu duten

Estatuetako enpresa ez espainolen jarduteko gaitasuna, APKLren Araudi Orokorraren I. eranskinean jasotzen diren erregistro profesional edo merkataritzakoren bateko inskribapenaren bitartez egiaztatuko da.

5.LIZITAZIOAREN AURREKONTUA

Obren lizitazio aurrekontua, gehienez ere 285.557,41 eurokoa da; horri BEZari dagokion 59.967,06€ko kopurua erantsiko zaio. Hau da, guztira 345.524,47euro.

Kontratuaren aurrekontuaren zenbatekoa eta obrek dirauten artean indarrean egongo diren prezio bateratuen zerrenda, hautatutako proposamenaren onarpenetik ateratzen direnak izango dira.

6.AURREKONTU KREDITUA

Obrak bi urteko aurrekontuaren kontura egingo dira.

7.PREZIOAK BERRIKUSTEA

Obraren ezaugarriak kontuan izanik, Kontratu honetan ez dira prezioak berrikusiko

8.OBREN GAUZATZE EPEA

Obrak egiteko epea 3 hilabetekoa izango da, gehienez ere, hasten direnetik hasita.

KONTRATUA ESLEITZEA

9.ESLEIPEN PROZEDURA ETA ERA

Kontratu prozedura ireki bitartez eta esleipen irizpide desberdinekin esleituko da.

- Eskaintzen balorazio irizpideak.

Apreziazio automatikoko irizpideak.

Prezinoa 50 puntu, ondorengo jarraibideen arabera emango direnak:

%0 eta 15 arteko beheranzko lizitazioetarako puntuazioa, eskaintako beheranzko portzentuala 3 aldiz izango da.

%15etik gorako beheranzkorik balego, 50 puntuko gehieneko puntuazioa portzentualki gehien jaitsi duen eskaintzak jasoko luke eta %15etik gorako beheranzkoa duten gainontzeko eskaintzek bi puntu horien arteko interpolazio linealaren bitartez lortuko lukete puntuazioa.

Apreziazio subjektibo- ez automatikoko irizpideak.

Obrak egiteko proposamen teknikoa, 50 puntura arte.

Ondorengo kontzeptuak baloratuko dira:

Lan egitaraua, zehatzuz lan bakoitzean erabiliko diren giza talde eta materialen dimentsionamendua, beren errendimendua eta ondorioz jarduera bakoitzari esleitutako denborak. Epeak murriztea baloratuko da, beti ere lan egitarauan justifikatuta badago eta aurreikusitako errendimenduekin bat badator. 50 puntura bitarte.

Proposamen teknikoan 25 puntuko gutxieneko puntuazioa gainditzen ez duten proposamenak lizitazioetik kanpo geratuko dira.

10.BEHIN BEHINEKO BERMEA

Kontratuen behin behineko esleipendun gertatzen direnek, ez dute behin behineko bermerik ordaindu beharrik izango, SPKLTBren 103 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

11.ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA.

Proposamenak eta gainerako dokumentazioa, ondorengo ataletan adierazitako moduan aurkeztuko dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den lizitazio iragarkian esandako lekuan eta epetan.

Lizitazio iragarkian esandako bulegoetan aurkeztu ahal izango dira, eta bestela postaz edo mezularien bitartez ere bidali ahal izango dira. Kasu horretan interesatuak frogatu egin beharko du, dagokion frogagiriarekin, noiz izan diren bidaliak eta jakinarazi egin beharko dio bidali diren egunean bertan kontratazio organoari, proposamena bidalia izan dela fax, telex edo telegrama bidez. Mezu elektronikoko bitartez egindako igorpena baliozkoa izango da, bidali izana eta hartu izana, data, eta komunikazioen eduki osoa jasota badago eta igorlea eta hartzailea identifikatzen badira. Bi betekizun horiek betetzen ez badira, edota igorri izanaren jakinarazpena iragarkian adierazitako epea baino beranduago, hau da, jarritako eguna eta ordua baino beranduago iristen bada, proposamena ez da onartuko.

Edozein modutan, epea bukatu eta hamar egunetan proposamena iristen ez bada, ez da onartuko inolako kasuetan.

Interesatuak lizitazio iragarkian aipatzen diren bulegoetan aztertu ahal izango dituzte bai proiektua baita pleguak ere.

Proposamenak aurkezteak Plegu hau eta Baldintza Teknikoen Plegua bere osotasunean onartzen direla esan nahi du, inolako salbuespenik gabe.

Proposamenak aurkezteko bulego bat baino gehiago daudenean, administrazio bulego bakarra erabiliko da proposamena aurkezteko eta hala egingo ez balitz lizitatuzaileak aurkeztutako guztiak baztertu egingo dira.

12.PROPOSAMENEN EDUKIA

Lizitazioetarako dokumentazioa 2 kartazal itxietan aurkeztuko da. Kanpotik identifikatuak egongo dira, zein lizitazioetara aurkezten diren adierazi beharko dute, eta lizitatuzaileak edo ordezkatzak dituen pertsonak sinatuta, izen abizenak edo enpresaren egoitza soziala adieraziz. Baita telefono eta fax zenbakiak eta helbide elektronikoa, baldin baditu, lizitatuzailearen eta hura ordezkatzak aurkezten den pertsonaren sinadurarekin batera.

Kartazal bakoitzaren edukiak, beste orri batean egongo denak, jarraian adieraziko diren ezaugarriak izan beharko ditu:

1. ZENBAKIDUN KARTAZALA. Ondorengo titulua edukiko du: 1 ZENBAKIDUN KARTAZALA: Aretxabaletako B eremuan egingo den bidegorriaren lanak kontratatzeko Dokumentazio Orokorra.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011ko 146 Errege Dekretu Legegilearen 146. artikulua 4. atalak ahalbidetzen duen neurrian, lizitatuzaileak 1. atalean ezarritako dokumentazio aurkeztu ordez, aitorten arduratsua aurkeztu beharko du esanez

Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela. Kasu horretan Kontratuaren esleipendun izateko proposamena jasotzen duen lizitatuak, eskatutako dokumentazioa duela eta baliozkoa dela egiaztatu beharko du kontratazio organoaren aurrean kontratua esleitu aurretik. Aitorpen arduratsua ondorengo eredura lotutakoa:

- “.....Andreak/Jaunak, nire izenean edo enpresaren legeko ordezkari izanik, NIRE ARDURAPEAN AITORTZEN DUT:
- 1º. Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011ko 146 Errege Dekretu Legegileak eskatzen duenaren arabera, bertan aurreikusitako termino eta baldintzetan.
- 2º. 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan kontratatzeke zehaztutako debeku eta bateraezintasunik ez duela (ez berak ezta ordezkatzeko enpresak eta bere administrari edo ordezkariak ere).
- 3º. Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, eta Aretxabaletako Udalarekin, exekuzio aldi ordaindu beharreko tributuzko zorrik ez duela, baimena emanez Administrazio kontratugileari, esleipendun gertatzen bada informazio hori eskuratu ahal izateko, hitzarmenak egin dituen beste Administrazio Publiko batzuen datu baseen bitartez.
- Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege dekretu Legegilearen 146 artikuluko 1. atalean eskatutako dokumentazioa duela eta baliozkoa dela egiaztatzeko konpromisoa hartzen du kontratazio organoaren aurrean kontratua esleitu aurretik. Lekua, data eta lizitatuaren sinadura.

2. ZENBAKIDUN KARTAZALA. Ondorengo titulua edukiko du: 2 ZENBAKIDUN KARTAZALA: Aretxabaletako B eremuan egingo den bidegorriaren lanak kontratatzeke proposamena. Eskaintza ekonomikoen edukia, plegu honi erantsita datorren ereduaren arabera idatziko da, kontratazio organoak eskaintzak aintzat hartzeke funtsezko deritzon edozer argi eta garbi ikustea eragotziko duten inolako akats edo zirriborrorik gabe. Hala ez balitz dagokion proposamena baztertuta geratuko da.

Kartazal horretan, era berean proposamen teknikoak aurkeztuko da.

Lizitatuak bakoitzak kontratuaren helburuari buruzko proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, eta ezingo dira aldagai edo beste aukera batzuk aurkeztu.

Beste enpresari batzuekin aldi baterako batasuna osatuz lizitatu duen enpresariak ezingo du proposamen individualik aurkeztu, ez eta lizitazioan parte hartzen duen aldi baterako batasun bat baino gehiagotan aurkeztu. Arau hauek hausten dituen proposamenik ez da onartuko eta ondorioz berak sinatzen dituen proposamen guztiak baztertuta geratuko dira..

13.DOKUMENTAZIO OROKORRA KALIFIKATZEA

Proposamenak aurkezteke epea pasa ondoren Kontratazio mahaiak, 1. kartazalean dagoen dokumentazioan dagoen dokumentazio orokorra kalifikatuko du eta ikusiko balu, konpon daitezkeen akats edo hutsegiteak daudela, bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz, adieraziko dio dagokion lizitatuari, jakinarazpen horren berri espedienteen jasota geratuz. Gehienez ere hiru laneguneko epea emango zaie lizitatuari, antzemandako akats edo hutsegite horiek konpontzeke. Dena den aurkeztutako dokumentazio horrek konpondu ezin daitezkeen akats edo hutsegiteak balitu ez da lizitazioan onartuko.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen akatsen konponketa alde batera utzita, Kontratazio mahaiak, lizitatuaren kaudimena osatzeko, egoki irizitako galderak egin ahal izango ditu aurkeztutako dokumentu eta ziurtagiriei buruz eta hala iriziz gero beste dokumentu osagarri batzuk eskatu ahal izango ditu. Dokumentazio osagarri hori bost laneguneko epean aurkeztu beharko da eta beti ere proposamenak onartutaz jo aurretik.

14.PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ESLEIPENA.

Aurreko guztia egin ondoren, Kontratazio Mahaiak onartutako lizitzaileen proposamenak irekiko ditu jendaurreko ekitaldian, aldez aurretik adierazitako lekuan eta egunean, ondorengo prozedura jarraituz:

Lehenik eta behin Presidenteak, jasotako proposamen kopuruaren berri emango die bertaratuei lizitzaileen izenekin batera, 1 zenbakidun kartazalean aurkeztutako dokumentazio orokorraren kalifikazioaren emaitza jakinaraziko die eta onartutako eta baztertutako lizitzaileak zeintzuk izan diren esango die, baztertutako kasuan, baztertuak izateko egon diren arrazoiak azalduz; jarraian egoki diren oharrak egin ditzaten gonbita egingo die, eta baleude aktan jasoko dira. Mahaiak ezingo du, dagoeneko, eskaintzak onartzeko edo leudekeen akats eta gabeziak zuzentzeko emandako epean aurkeztu ez den dokumenturik jaso.

Jarraian Mahaiaren idazkariak, onartutako lizitzaileen kartazalak irekiko ditu, eskaintza ekonomikoaren eta gainerako esleipen irizpideei buruz aurkeztutako dokumentuen berri emanez.

Proposamenak ireki ondoren, mahaiaren Presidenteak gonbita egingo die bertaratu diren lizitzaileei, burututako ekitaldiari buruz egoki irizten dituzten ohar edo erresebak azaltzeko, eta ohar edo erresebarik balego, jakinaraziko die erreklamazio idatziak aurkeztu ahal izateko aukera dutela kontratazio organoaren aurrean, bi laneguneko epean. Jarraian proposamenak irekitzeko jendaurreko ekitaldia amaitutzat emango da eta han gertatutakoaren berri aktan jasoko da.

Kontratazio mahaiak egoki irizten dituen txosten teknikoak eskatu ondoren, ontzat iriztitako esleipen proposamen arrazoitua jasoko du kontratazio organora; proposamen horretan plugu honetako 9. klausulan aipatzen diren irizpideen ponderazioa jasoko da, eta izandako bilera guztien aktak eta bilera horietan sortutako dokumentazio guztia eta hala badagokio, egindako txostenak.

Kontratazio organoak, ekonomikoki eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitzaileari eskatuko dio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasitako hamar eguneko epean, SPKLTBren 146 artikuluko 4. atalak ezartzen duena betez, agindu horren 1. atalean eskatzen diren dokumentuak badituela eta baliozkoak direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezala eta baita zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitatuta dituela egiaztatuko duten frogagiriak ere, edo kontratazio organoari baimena eman diezaiola, eskatutakoa egiaztatuko duten agiriak zuzenean eskatzeko. Baita Kontratu gauzatzeko erabiliiko dituen bitartekoak egiazki dituela egiaztatuko duten frogagiriak ere, SPKLTBren 64.2 artikularekin bat etorri eta egoki den behin betiko bermea eratu izanarenak. (SPKLTBren 151.2 Art.)

Errekerimendua emandako epean behar bezala beteko ez balitz, lizitzaileak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da. Kasu horretan eskaintzaren sailkapenetan hurrengo postuan geratu den lizitzaileari eskatuko zaio dokumentazioa aurkeztea

Kontratistak kontratua behar bezala gauzatzeko giza baliabideak eta materialak jarri beharko ditu eta konpromiso hori kontratuzko ezinbesteko betebeharra izango da, beti ere SPKLTBren 64. artikuluko 1 eta 2 atalekin bat etorri.

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio organoak kontratua esleitu egin beharko du, dokumentazioa jaso eta hurrengo bost lanegunetako epean.

Esleipena egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzen diren hurrengo egunetik hasita, eta beti ere beste epe bat jartzearen kaltetan gabe SPKLTBaren 161.2 artikularekin bat etorri; azken kasu horretan kontratazio espedientean justifikatu beharko delarik.

Aurreko atalean aipatzen den epea hamabost egunez luzatu ahal izango da SPKLTBren 152.3 artikulua aipatzen dituen izapideak jarraitzea beharrezko denean.

Esleipena aurreko bi ataletan adierazitako epe horietan egingo ez balitz, lizitatuzaileek egindako proposamena erretiratzeko aukera izango dute.

Aurkeztutako proposamen guztiak, bai onartutakoak baita ireki gabe baztertutakoak edota ireki ondoren baztertu direnak ere, dagokion espedientearen artxibatuko dira. Kontratua esleitu eta errekurtsioak jartzeko epeak, ezer jarri gabe iragan ondoren, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesatuen eskura geratuko da.

III. KONTRATUA FORMALIZATZEA

15.BEHIN BETIKO BERMEA ORDAINZEA

Herri Administrazioek deitzen dituzten kontratuen lizitazioetan eskaintza ekonomiko onenak aurkezten dituztenek, kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren ehuneko bosteko (%5) bermea jarri beharko dute kontratazio organoaren eskura. BEZa ez dago barne.

Berme hori dirutan ordaindu ahal izango da, edota abalaren bidez, balio publikoetan edo balio pribatuetan eta kauzio seguruaren kontratu baten bitartez, SPKLTBaren 96. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako era eta baldintzetan, eta bere zenbatekoa edota dagozkion frogagiriak udal Diruzaintza Orokorrean utziko dira.

Kontratua aldatu delako haren balioa aldatzen denean, bermea ere doitu egingo da, kontratuaren aldaketaren ebazpena esleipendunari jakinarazten zaion egunetik hasi eta hamabost laneguneko epean. SPKLTBaren 99.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Zigorrek edo kalte ordainak, baleude, gauzatzen direnetik hasi eta hamabost eguneko epean, esleipendunak ordaindutako bermea berrezarri edo handitu egin beharko du dagokion zenbatekoan. Hala egingo ez balu kontratua bertan behera geratu ahal izango da.

16.KONTRATUA FORMALIZATZEA

Herri Administrazioek gauzatutako kontratuak, lizitazio baldintzetara zehatz-mehatz lotuko den administrazio kontratuan formalizatu beharko dira; agiri hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotara jotzeko. Kontratatik, kontratua eskritura publikoan jaso dadila eskatu ahal izango du, sortutako gastuak bere kontura izanik. Kontratua formalizatzen den dokumentuan ezingo da sartu esleipenaren terminoen aldaketa eragingo duen klausularik.

Esleipenduna, enpresarien aldi baterako batasuna denean, epe berdinen barruan eta kontratua sinatu aurretik, hala eratu izanaren eskritura publikoa aurkeztu beharko du.

Kontratua esleipendunaren erruagatik epe barruan formalizatzen ez bada, Administrazioak, kasu horretan eskatutako behin behineko bermearen kopuruaren konfiskazioa erabaki dezake, behin betiko bermetik.

Ez formalizatzea Administrazioaren erruz izan bada, kalte-ordainak ordainduko zaizkio Kontratatari, horrek eragin ditzakeen atzerapenengatik.

KONTRATUA BURUTZEA

17.ZUINKETA EGIAZTATZEA

Kontratua sinatzen denetik hasi eta hilabeteko epean (gehienez ere) eta salbuespenak salbuespen, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko da kontratistaren aurrean, SPKLTBren 229 artikuluan eta APKLren Araudi Orokorreko 139, 140 eta 141 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Obraren zuzendariaren iritziz eta kontratistaren erreparorik gabe zuinketaren egiaztaketaren emaitzak, lurren edukitza eta erabilgarritasuna, haien egokitasuna eta proiektuaren bideragarritasuna erakusten duenean, obrak hasteko baimena emango da eta hori espresuki jasoko da egingo den aktan; kontratista baimenaz jakinarazita geratuko da sinatze hutsarekin. Obraren gauzatze epea, akta hori sinatu eta hurrengo egunetik hasiko da.

18.LAN PROGRAMA:

Kontratatistak, APKLren Araudi Orokorreko 144 artikuluan esaten diren puntuak buruzko lan programa bat aurkeztu beharko du kontratua formalizatzen denetik hasi eta hogeita hamar eguneko epean, gehienez ere.

Lan programak ezingo du inolako aldaketarik sartu kontratuzko baldintzetan, nahiz eta obraren gauzatze epe osoaren murrizketa proposatu dezakeen edo epe partzialena, Administrazioaren kreditu erabilgarritasunek, aldaketa horietatik ondorioztatu daitezkeen urterokoek doiketak egiten uzten dituzten bitartean eta beti ere obraren esleipenaren aurrekontu osoaren gehikuntza ekartzen ez duten bitartean.

Kontratazio organoak lan programa aurkeztu eta 15 egun naturaleko epean ebatziko du. Ebazpen horretan, aurkeztutako lan programan aldaketak sartzea ekar dezake, edota hainbat baldintzen betetzea, beti ere kontratuaren klausulekin kontraesanean ez badaude.

Lan programa onartuta, kontratuari atxikiko zaio, eta hala badagokio urterokoek doiketa egingo da.

19.OBRAK SEINALEZTATZEA

Kontratatistak, obrara sartzeko, lanek hartzen duten guneko zirkulazioa markatzeko, eta lanen bilakaera dela eta arriskutsuak izan daitezkeen puntuak adierazteko beharrezkoak diren seinaleak jarri beharko ditu bere kontura, bai lanen gunean bertan baita inguruetan ere.

Kontratatistak, beste seinale osagarri batzuk jartzeari buruz edo daudenak aldatzeari buruz zuzendaritza idatziz jasotako aginduak beteko ditu.

Seinalizazioaren ondorio diren gastuak kontratistaren kontura izango dira

Lanak hasteko agindua eman eta 15 laneguneko epean, kontratatistak kartel bat jarriko du - gutxienez- obraren zuzendariak esango dion lekuan, Aretxabaletako Udalak kontratatutako obraren derrigorrez jarri beharreko publizitatearen erregimenari buruzko arauak betez.

Aurreko atalean esaten den seinalizazioa jartzeko epea pasa eta kontratatistak jarri ez badu, Administrazioak berak jarriko du eta eragindako gastuak kontratistaren kontura izango dira .

V. OBREN GAUZATZEA

20.OBRA ZUZENDARITZA ETA KONTRATUAREN ORDEZKARIA.

Administrazioak, kontratatutako obra behar bezala gauzatzen ari dela egiaztatzeko egoki diren ikuskapena, egiaztaketa eta zaintza egingo ditu, horretarako izendatutako zuzendari teknikoaren bitartez, eta kontratistari eman beharreko agindu guztiak obra ordezkariaren bitartez emango dizkio.

Kontratistaren obra Ordezkaria berak izendatu eta administrazioak kontratua formalizatu aurretik onartuko duen pertsona izango da eta kontratu honen xede diren obren antzeko izaera duten obretan, egiaztatutako eskarmentua edukiko du.

21.KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Obrak, Administrazioari Klausula Partikular hauetan jasotako klausulak, eta kontratuaren oinarria den proiektua zehatz-mehatz bete egingo dira, eta obren Zuzendari teknikoak, eta bere kasuan, kontratuaren arduradunak, bakoitzak bere arloan, kontratistari, proiektuaren interpretazio teknikoa tarteko emandako aginduekin bat etorri Agindu horiek hitzez ematen direnean, idatziz ere eman beharko dira lehenbailehen alde guztietarako lotesleak izan daitezzen.

Obrek dirauten artean eta berme epea bete arte, kontratista eraikuntzan antzeman ahal izango diren akats guztien erantzule izango da.

Administrazioak izendatutako zuzendari teknikoaren ustez, egindako obra zatiren batean akatsik balego, kontratistak berriro egin beharko du, kalte ordainak jasotzeko inolako eskubiderik gabe, nahiz eta hartuak izan ondoren antzeman.

Obra zuzendariak uste badu, obran antzemandako akats horiek edo kontratuaren baldintzak bete betean betetzen ez dituztenak onargarri izan daitezkeela, Administrazioari proposatu ahal izango dio haiek onartzea, beti ere prezioetan beherapena aplikatuz. Kontratistak, kasu horretan, Administrazioak ezarritako beheratutako prezio horiek onartu beharko ditu, salbu eta nahiago badu gaizki egindako zatiak bota eta berriro egin, bere kontura eta kontratuaren baldintzekin bat etorri.

Kontratistak, kontratuaren gauzatzeak ekar ditzakeen eragiketen ondorioz beste hirugarren batzuei berak edo bere ardurapeko langileek eragindako kalte galeren erantzule izango da eta ordaindu egin beharko ditu.

Kalte horiek, Administrazioak emandako agindu baten ondorioz gertatzen direnean edota hark egindako proiektuaren bizioen ondorioz, Administrazioa izango da erantzule Legeetan seinalatutako mugen barruan.

Lan arloko gaietan, gizarte segurantzako gaietan eta laneko segurtasun eta higiene gaietan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu kontratistak.

Kontratua kontratistaren arrisku eta benturara gauzatuko da, SPKLTBren 231 artikuluan ezarritakoaren kaltetan gabe.

22.KONTRATISTAREN KONTURA DIREN GASTUAK ETA ZERGAK

Kontratistaren kontura izango dira, lizitazioa Aldizkari Ofizialetan eta probintzia bakoitzeko egunkari batean argitaratzearen ondorioz sortzen diren gastuak eta kontratua formalizatzearenak baldin eta eskritura publikoan jasotzen bada.

Argitaratze gastu horiek kontratistaren alde egindako lehenengo ordainketatik kenduko dira, salbu haien kostuaren ordainketa egina daukala egiaztatzen badu.

Lizitaztaileek aurkeztutako proposamenetan eta esleipenaren zenbatekoetan, obraren gauzatzea zergapetuko duten tasa eta zerga guztiak, zuzenekoak eta zeharkakoak barne daudela ulertzen da; guztiak kontratistaren kontura izango dira.

Era berean barne daude, bai proposamenetan baita esleipen aurrekontuan ere, kontratistaren kontura izanik, udal tasa eta arielak.

23.KONTRATISTARI ORDAINKETAK

Kontratistari ordainketa gisara, obraren zuzendariak, egindako lanaren hileroko ziurtagiriak egingo ditu, eta haiak konturako ordainketa izaera edukiko dute. Dagokion epea iragan eta hurrengo hamar egunen barruan tramitatu beharko ditu, eta haien kopia bat kontratistari bidali beharko dio, hark, hamar laneguneko epean, bere adostasuna edo desadostasuna adierazi dezan. Edozein erataraz Administrazioak izendatutako ikuskatzailearen oniritzia eduki beharko dute.

Ordainketak, obra ziurtagiriak onartu eta hurrengo egunetik hasitako hogeita hamar eguneko epean egingo dira, SPKLTBren 216.4 artikuluan aurreikusitako terminoetan, 13/2014 Legeak emandako idazkeran.

Administrazioa ordainketan atzeratuko balitz, atzerapenengatiko interesak eta kobrantza kostuengatiko kalte-ordaina ordaindu beharko dizkio kontratistari hogeita hamar eguneko epea iragan eta hurrengo egunetik aurrera, merkataritza eragiketetan berankortasunaren kontrako borroka neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako terminoetan. .

Ordainketaren atzerapena, aurreko paragrafoak aipatzen dituen hogeita hamar eguneko epetik hasi eta lau hilabetetik gorakoa balitz kontratistak kontratua eten dezake. Nolanahi ere hilabeteko epearekin jakinarazi beharko dio gorabehera hori Administrazioari, etete horretatik ondoriozta daitezkeen eskubideen aitortzarako, SPKLTBean ezarritako terminoetan.

Ordainketaren atzerapena, klausula honetako lehen paragrafoak aipatzen dituen hogeita hamar eguneko epea iraungitzen denetik hasi eta sei hilabetetik gorakoa balitz kontratistak kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du eta horren ondorioz ondoriozta daitezkeen kalte-ordainak ordaintzekoa (SPKLTBren 216.6 art.).

Kontratistak, aurreikusi baino azkartasun handiagoz egin ditzake lan horiek, nahiz eta ez duen edukiko dagokion urtean izendatutako prezioa baino gehiago kobratzeko eskubiderik izango; zenbateko horretatik gorako zertifikazioak hurrengo urtean ordainduko zaizkio.

Konturako ordainketak eskatu ahal izango dira, kontratistak idatziz hala eskatzen badu, materialak pilotzeagatik, obrara atxikitako instalazioengatik eta taldeengatik, Administrazio Publikoko Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 155, 156 eta 157 artikuluetan aurreikusitako eran eta bermeekin.

Kontratistak beste hirugarren bati laga ahal izango dio, legez ezarritako bitartekoren bat erabiliz, kontratua kobratzeko duen eskubidea, baina lagapen horrek ondorioak izan ditzan eta Administrazioak emakidadunaren aldeko ordainketa agindua eman dezan, beharrezkoa da administrazioari emakida erabakia jakinaraztea.

24.EPEAK BETETZEA

Esleipenduna behartuta dago, obraren gauzatze epea betetzera. Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa igarotakoan burutu gabe badu kontratua, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi edo lanak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko, kontratuaren prezioaren 601,01 euroko 0,12ko proportzioan.

Atzerapenengatiko zigorren gutzizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren

bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeke. Ahalmen bera edukiko du Administrazioak kontratistak epe partzialak betetzen ez baditu edota haien betetzean emandako atzerapenak, epe osoa betetzea ezinezkoa izango dela pentsarazteko arrazoiak ematen baditu.

Zigorra jartzeak ez du baztertzen Administrazioak, kontratistari egotz dakioken atzerapenak eragin ditzakeen kalteengatik kalte ordainak kobratzeko duen eskubidea

Kontratista berandutzan erortzen bada, ez du Administrazioaren alde aurreko jakinarazpenik izango-

Kontratistak, berarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik epeak bete gabe baditu, Administrazioak, haren eskariz edo ofizioz, egoki den luzapena eman ahal izango du SPKLTBen 213 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

25.KONTRATUAREN HELBURU DEN GAUZATZEAN EZ BETETZE PARTZIALA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen gauzatze partziala epean bukatzen ez badu, kontratazio organoak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo aurrez ezarritako zigorrak ezartzea

VI- KONTRATUA ALDATZEA

26.OBRAK BERTAN BEHERA UZTEA

Administrazioak kontratua bertan behera uztea erabakiko balu edo bertan behera uztea SPKLTBen 216 artikuluan eta plegu honetako 25.2 klausulan xedatutakoa aplikatuz ematen bada, akta jasoko da, bertan behera zergatik utzi den eta zein egoeratan dagoen azalduz.

Bertan behera uztea erabaki ondoren, Administrazioak kontratistak izandako kalte ordainka ordainduko dizkio; kalte ordain horiek SPKLTBen 239.3 eta 4 artikuluan xedatutakoaren arabera zenbatuko dira.

VI- KONTRATUA AMAITZEA

27.KONTRATUA BETETZEA ETA LANAK HARTZEA

Kontratua beteta dagoela ulertuko da, kontratistak helburua bere osotasunean betetzen duenean, hau da kontratuaren terminoekin bat etorritik eta Administrazioaren oniritziarekin.

Kontratistak, berrogeita bost laneguneko aurrerapenarekin eta idatziz jakinaraziko dio obra zuzendaritzari kontratua noiz bukatuko den, hura hartu ahal izateko.

Hartze ekitaldira, zeina APKLren Araudi Orokorraren 163 eta 164 artikuluetan agindutakoarekin bat etorritik egingo den, Administrazioak izendatuko duen ordezkari bat, Kontuhartzaitza Orokorreko beste ordezkari bat – hala badagokio- obren zuzendaritzaz arduratu den tekniko eta kontratista, hala irizten badiot bere teknikariak lagunduta.

Lanak egoera onean badaude eta aurreikusitako betekizunekin bat etorritik, Administrazio kontratu egileak izendatu eta bere ordezkari jardungo duen funtzionario teknikoak, hartutzat emango ditu, dagokion akta jasoz eta berme epeari hasiera emanez.

Obrak hartzeko moduan ez badaude, aktan horrela jasota geratuko da eta haien Zuzendariak

antzemandako akatsen berri emango du eta agindu zehatzak emango ditu, akatsak zuzentzeko epe bat ezarri. Epe hori pasata, kontratistak akatsak zuzendu ez baditu, luzaezina izango den epe berri bat emango zaio edo kontratua bertan behera uzteko du.

Espedientean behar bezala arrazoituta egongo diren, interes publikoko arrazoi bereziengatik, kontratazio organoak erabakiko balu obrak hartzea edota jendearentzako zabaltzea, nahiz eta hartze ekitaldi formala egin gabe izan, hartze edo zerbitzuan jartze hori ematen denetik hartze ekitaldiak berezko dituen ondorioak sortuko dira, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 168 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

28.KONTRATUA AMAITZEA

Betetze hipotesiengatik ez ezik, kontratua amaitutzat emango da, SPKLTBren 223 eta 237 artikuluetan aurreikusitako kausaren bat eman delako hala erabakitzen denean, 239 artikuluan aurreikusitako ondorioak sortuz.

29.LIKIDAZIOA

Obrak hartzen direnetik hasitako hiru hilabeteko epean, (SPKLTB 235.1 art.) kontratazio organoak egindako lanen azken ziurtagiria onartu beharko du, kontratistari ordainduko zaiona, hura ematen denetik hasi eta 30 eguneko epean (SPKLTB 216.4 art. 13/2014 legeak emandako idazkeran) kontratuaren likidazioaren kontura.

Berme epea amaitu baino hamabost egun lehenago, obraren zuzendari teknikoak, ofizioaz edota kontratistaren eskariz, obraren egoerari buruzko txostena idatziko du. Txostena aldekoa balitz, kontratistak ez luke obraren gaineko inolako erantzukizunik izango, ezkutuko bizioengatik duen erantzukizuna ez bada, bermea itzuli egingo zaio, kontratua kitatu egingo da eta hala badagokio, ordaintzeke dituen betebeharrak ordainduko ditu, hirurogei eguneko epean (SPKLTB 235.3 art.).

Administrazioa likidazioaren ordainketan atzeratuko balitz, kontratistak atzerapenengatik interesak eta kobrantza kostuengatik kalte-ordaina kobratzeko eskubidea izango du, merkataritza eragiketean berankortasunaren kontrako borroka neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako terminoetan (SPKLTB 222.4 art.).

30.BERME EPEA

Urte beteko berme epea zehazten da, obrak hartzen direnetik hasita.

Berme epean, obrak mantentzera behartuta dago kontratista, Baldintza teknikoan Pleguetan aurreikusitakoarekin bat etorritik eta obraren zuzendaritzatik jasotako aginduak jarraituz, epe horretan eman daitezkeen kalte edo hausturez erantzunez.

31.BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEA EDO LIKIDATZEA.

Obraren egoerari buruzko txostena aldekoa bada, ordaindutako bermea itzuli edo kitatu egingo da.

Txostena kontrakoa balitz, eta antzemandako akatsak, obraren gauzatzean izandako akatsengatik balira, ez eraikitakoaren erabileragatik, berme epean zuzendari teknikoak, dagokion aginduak emango dizkio kontratistari eraikitakoa konpon dezan. Horretarako epe bat emango da, eta hark dirauen artean obra arduradunak ez du, berme epearen handitzea dela eta inolako diru-kopururik jasotzeko eskubiderik izango.

Kontratua amaitu eta handik urte betera, formalki hartu ez bada, eta likidatu gabe badago, kontratistari egotz dakiokeen arrazoirik gabe, bermea itzuli edo kitatu egingo da, beti ere, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 100) artikulua aipatzen dituen erantzukizunik eman ez bada.

32.KONTRATISTAREN ONDORENGO ERANTZUKIZUNA

Berme epea iragan ondoren, obrak hartzen direnetik hasitako hamabost urteko epean kontratista berak erantzun beharko die kalte-galerei, obra, eraikuntzan leudekeen bizio ezkutuengatik hondatzen bada eta hondatze hori bere erruz (kontratua ez-betetzeagatik) ematen bada.

Epe horretan kalteri keta galerarik azaleratuko ez balitz, iraungia geratuko da kontratistaren erantzukizuna.

33.JURISDIKZIOA

Administrazioko kontratuen interpretazio, aldaketa, bertan behera uzte eta ondorioei buruz sortu ahal diren auziak, gaitutako kontratazio organoak ebatziko ditu. Hark hartutako erabakiek administrazioko bideari amaiera emango diote eta betearazleak izango dira eta haien aurka birjarpen errekurtoa jarri ahal izango da, organo beraren aurrean edo administrazioarekiko auzien errekurtoa, aipatutako Jurisdikzioa arautzne duen Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

I. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... Jnak/Andreak, NA Aretxabaletako "B" eremuan egingo diren Bidegorriaren lanak gauzatzeko kontratua arautuko duten Administrazioako Klausula Partikularren, baldintza teknikoaren eta proiektuaren jakitun izanik, beren edukia bere osotasunean onartuta, beren izenean edota ordezkatzeko dituen pertsonen/enpresen izenean esandako obra eurotan egiteko konpromisoa hartzen du.

Lekua, data eta lizitatuaren sinadura.

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS PREVISTAS EN EL PROYECTO DE BIDEGORRI, ÁMBITO B DE ARETXABALETA

I. DISPOSICIONES GENERALES

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato será la realización de las obras previstas en el proyecto de Bidegorri, ámbito B de Aretxabaleta.

Dicho objeto corresponde al código 45212212 de la nomenclatura Vocabulario Común de Contratos (CPV) de la Comisión Europea.

El proyecto de las mencionadas obras ha sido aprobado por el órgano de contratación mediante acuerdo de fecha 27 de abril de 2015.

Tendrán carácter contractual los planos, el pliego de prescripciones técnicas, la memoria en lo referente a la descripción de los materiales básicos o elementales que formen parte de las unidades de obra, los cuadros de precios, el programa de trabajo del proyecto y, en su caso, el que presente el adjudicatario, una vez aprobado por la Administración.

2.- ÓRGANO DE CONTRATACIÓN

El órgano de contratación, que actúa en nombre del Ayuntamiento, es la Junta de Gobierno Local.

El mencionado órgano tiene facultad para adjudicar el correspondiente contrato administrativo y, en consecuencia, ostenta las prerrogativas de interpretarlo, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, con sujeción a la normativa aplicable. Los acuerdos que a este respecto dicte serán ejecutivos, sin perjuicio del derecho del contratista a su impugnación ante la Jurisdicción competente.

3.- RÉGIMEN JURÍDICO

La contratación a que sirve de base este pliego tiene carácter administrativo, y ambas partes quedan sometidas al Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, así como al Reglamento General de dicha ley, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, en todo lo que no se oponga a aquélla, y al Pliego de Cláusulas Administrativas Generales del Estado para la contratación de obras del Estado aprobado por el Decreto 3854/1970, de 31 de diciembre, en cuanto no se oponga a las normas citadas.

Asimismo, será de aplicación el RD 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la LCSP y las demás disposiciones que regulan la contratación administrativa del Estado, y las dictadas por la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el marco de sus respectivas competencias.

4.- CAPACIDAD PARA CONTRATAR

Podrán contratar con la Administración las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras que, teniendo plena capacidad de obrar, no se hallen comprendidas en alguna de las circunstancias previstas en el art. 60 TRLCSP, extremo que se podrá acreditar por cualquiera de los medios establecidos en el art. 73 TRLCSP.

Las empresas no españolas de Estados miembros de la Comunidad Europea, deberán acreditar su capacidad de obrar mediante certificación de inscripción en uno de los registros profesionales o comerciales que se indican en el anexo I del Reglamento General de la LCAP.

5.- PRESUPUESTO DE LICITACIÓN

El presupuesto máximo de licitación de las obras asciende a la cantidad de 285.557,41 euros más 59.967,06 de IVA, haciendo un total de 345.524,47 euros.

El importe del presupuesto del contrato y los precios unitarios que regirán durante la ejecución de las obras, serán los que resulten de la aprobación de la proposición seleccionada.

6.- EXISTENCIA DE CRÉDITO PRESUPUESTARIO

Las obras se sufragaran con cargo al presupuesto bianual.

7.- REVISIÓN DE PRECIOS

Teniendo en cuenta las características de la obra, no cabe la revisión de precios.

8.- PLAZO DE EJECUCIÓN DE LAS OBRAS

El plazo máximo de ejecución de las obras será de 3 meses, a contar desde la iniciación de las mismas.

